

## KONGRESUA:

UPV/EHUko Administrazio eta Politika Zientzia siletik Analsi Politiko Kritikoaren hirugarren nazioarteko kongresua aurkeztu nahi dizuegu, "Politikaren Itzulera? Demokrazia + Indar+ Burujabetza+" izenburua izango duena.

Galdera honen bidez, azken urteotan bai mundu akademikotik zein mugimendu sozial anitzen ekinbidetik politika egiteko eraren Inguruan sortu diren hausnarketa berriak aurkeztu nahi ditugu.

Egun, antolaketa sozialerako eta politikorako modelo berriak sortzen ari dira, analsien estrategiek elkarrir eragiten diote, tresna eta kontzeptu teorikoak birformulatzen ari dira eta Estatua eta mugimendu sozialen arteko harremanak berreraikitzen hasi dira. Hori dena eraldatze demokratikorako logika baten oinarrian gertatzen ari da, zapalketako logika zaharren aurrean.

Aurretik azaldutakoak eta beste batzuk izango dira ez tabaidarako eta hausnarketarako antolatzen dugun topagune honetako aztergalak.

## KONTAKTUA:

Politika eta Administrazio Zientzia Saila  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU),  
Leloa Campus, Sarriena auzoa z/g (48.940) Leloa (BIZKAIA)  
Tel: (+34) 946012283  
E-mail: politikarenitzulera@ehu.eus

## IZEN EMATEA:

Izen-ematea azaroaren 10a baino lehen egin behar da kongresuko web orriaren bidez:  
→ Urriak 15 baino lehen: 40€ (20€ ikasle, prekarario eta langabetuentzat)  
→ Urriak 15 eta azaroak 10 bitarte: 55€ (35€ ikasle, prekarario eta langabetuentzat)

### Antolatzaileak:

Parte Hartuz ikerketa taldea eta  
Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU)  
Politika eta Administrazio Zientzia Saila  
[www.ehu.eus/partehartuz](http://www.ehu.eus/partehartuz)  
[ jarduerak/actividades ]



BILBO 2015 AZAROAK 19-20

# POLITIKAREN ITZULERA?

DEMOKRAZIA +  
+POWER  
+SOBERANÍA

BLA BLA  
BLA...  
ACT NOW!

III. KONGRESUA:  
ANALISI POLITIKO KRITIKOA



UPV EHU

# Lan-taldeak, kongresuak lau lan-talde izango ditu:

## Politika berria: prozesuak, mekanismoak eta eragileak

**1** Talde honetan, arreta berezia jarriko diogu azken urteetan azaleratzen ari diren eragile eta prozesu politiko eta sozialen inguruko hausnarketa eta azterketari; hein handi batetan, eraldaketa demokratikoaren diskurtsoa eta praktika laguntzen ari diren eragile eta prozesuen ingurukoak, hain zuzen ere. Ez gara zehazki partidu politiko berrietaz ari, baizik eta eremu politikoan barneratzeko saiakera egiten dabiltzan politika eta gizarte antolamendu modu berrietaz; alderdi politiko bilakatzen diren mugimendu sozialak; udal sareen bateratzeak; mugimendu sozialetatik sorturiko bilgune eta estrategia berriak; eta abar. Eragile hauek zeintzuk diren eta nondik datozen aztertzeaz gain, gure jakin-mina beste galdera batzuetara ere bideratzen da: nola antolatzen dira? eta nola nahi dute antolatu eremu politiko erabakitzailea modu ezberdin batetan? Bestalde eta nolabait azken auzi honekin lotuta, prozesu politikoaren birformatzea aztertzen saiatuko gara, eragile sozial, politiko (ohikoak eta berriak) eta erakunde ezberdinen arteko prozesuak aztertuz, beren alderdi kooperatibo edo gatazkatsuan.

✉ **Kontaktua:** [noemi.bergantinos@ehu.eus](mailto:noemi.bergantinos@ehu.eus) – [josuxabier.larrinaga@ehu.eus](mailto:josuxabier.larrinaga@ehu.eus)

## Interseksionalitatea

**2** Kulturen arteko aniztasun berdintatzailean murgilduta dauden gizarte gehienek sakontasun demokratiko prozesuen gorakada handia pairatzen ari dira. Estrategien eta perspektiben dibertsitatea prozesu hauen ezaugarri adierazgarrienak dira. Hala ere, euren azkeneko helburua historian zehar baztertuak izan diren giza agenteak erabakitze prozesuetan parte hartzeko aukerak zabaltzea izango litzateke. Gainera, alor akademiko, politiko zein aktibistan sakontasun demokratiko barneratzailearen aldeko kezka sakona sortu da. Hori dela eta, azken urteetan demokratizazio prozesuak ikuspuntu integratzaile batetik aztertzen dituzten ikerketa lanak gora egin dute. hauek, gainera, plazaratzen eta ikustarazten dute agente baten posizioa hainbat desberdintasun sozialengatik gurutzatuta dagoela, eta, ezberdintasun horien interseksionalitatea egoera zapaltzaileak sortu ditzakeela. Lan-talde honetan, interseksionalitatearen ikuspuntutik demokrazian sakondu nahi dituzten gogoetei denbora eskaini nahi diegu. Beraz, ongi etorriak izango dira teorikoki, metodologikoki zien esperientzialki demokrazia eta interseksionalitatea harremantzen dituzten lanek. Biziki interesgarriak iruditzen zaizkigu bazterretan kokatu ohi diren zapalkuntzei aurre egiten dituzten agenteen agentzian erreparatzen dituzten ikerketek. Horregatik, lan-talde honetan dugun nahia interseksionalitatea ulertzeko dauden fokatzeko desberdinen arteko eztabaida-gunea sortzea da.

✉ **Kontaktua:** [patricia.martinezg@ehu.eus](mailto:patricia.martinezg@ehu.eus) – [zuriñe.rodriquez@ehu.eus](mailto:zuriñe.rodriquez@ehu.eus)

## Demokrazia eta Populismoa: Europa eta Latinoamerika ispiluari begira

**3** Hiru bosturtekoren ostean, Hego Amerikan neoliberalismoaren aurka eta subiranotasun handiagoaren alde bultzatutako aldaketa politikoek zalantzarik gabeko erreferentzia-esparru bat izaten jarraitzen dute. Horrez gain, egindako aurrerapenez eta izandako kontraesanaz hausnartzeko aukera hobezina eskaintzen dute. Beste alde batetik, europar proiektu hegemonikoari lehenengo arrailak sortzen ari zaizkio, eta lurralde eta posizio ezberdinetatik (ezkerrekoak zein eskumakoak) proposamen berri batzuk indarra hartzen ari dira: haietako batzuk ikuspegi alternatibotik eraikiak, eta beste batzuk joera erreakzionariokoak izanik.

Gure ustez, bi zonalde horietan gertatzen ari diren aldaketa korapilatsuak analizatu ahal izateko badaude oso baliagarriak diren bi elementu: demokrazia eta populismoa. Alde batetik, demokrazia, autoritarismo ekonomikoaren aurkako aldarrikapen herritar moduan nahiz edozein proiektu politiko ebaluatzeko tresna gisa ulertuta. Eta bestalde, populismoa, bere polisemiaren baitan, liskarrean dauden proiektu politiko berrien eta zaharren mugak eta ahalmenak identifikatzeko oso tresna teoriko baliagarria izanda.

✉ **Kontaktua:** [amaia.inza@ehu.eus](mailto:amaia.inza@ehu.eus) – [luismiguel.uharte@ehu.eus](mailto:luismiguel.uharte@ehu.eus)

## Estatugintza VS Herrigintza

**4** Nolakoak izan behar dute erakundeek eta herri ekimenen arteko harremanek? Herri mugimenduen logikak eta erakundeek logikak desberdinak izanik posible litzateke biak uztartzea? Zubiak eraiki behar dira edo bakoitzak bere esparrua ondo definitu beharko luke? Zer nolako eragina daukate erakundeek herri mugimenduetan eta herri mugimenduek erakundeetan? Ezkerrek gobernua eskuratzen duenean zer gertatzen da herri mugimenduen jardunean? Ba al dago aukerarik sistema kapitalistarekin kritikoak diren gobernuetatik herri mugimendua/k indartzeko? Lan-talde honetan bi paradigma horien arteko ezaugarri dikotomikoez eta bateragarriez hausnartuko dugu. Horretarako, Euskal Herrian eta espainiar Estatuan aurrera eramandako estrategien inguruko analisiaren bidez, herrigintzaren eta estatugintzaren logiken azterketan murgiltzen saiatuko gara.

✉ **Kontaktua:** [izaro.gorostidi@ehu.eus](mailto:izaro.gorostidi@ehu.eus) – [saratxomikel@hotmail.com](mailto:saratxomikel@hotmail.com)

## AGENDA

30

Iraila

Komunikazio-proposamenak (abstract) aurkezteko epe muga. Proposamenak lan-taldeko kontaktuari eta kongresuko idazkaritzari bidali behar zaizkie.

09

Urria

Lan-taldeetako erantzuna komunikazio proposamenel.

30

Urria

Komunikazioak bidaltzeko epe muga. Komunikazioak lan-taldeko kontaktuari eta kongresuko idazkaritzari bidali beharzaizkie.

06

Azaroa

Ebazpena eta programazioa.